

# NATOk estatuen osotasuna eta subiranotasuna defendatuko ditu

MEBek ezin duela NATO ordezkatu adierazi zuen George Bushek

**N**ATOren barnean dauden nazioek erakunde militar hau beren osotasuna eta subiranotasuna defendatzeko erabili nahi dute. Europan bizi den nazionalismoen berpizkundeari aurre egiteko ohizko estatu erraldoiek mugimendu independentistak bertan behera uzten saiatuko dira.

ERROMA

Estatuen osotasuna eta subiranotasunaren defentsa izango dira aurreentzean NATOk defendatuko dituen tesiak. Era berean, Mendebaldeko Europaren Batasuna defentsa europarra gauzatzeko erakunde gisa ez dute oso ondo ikusten Estatu Batuetako Gobernuak. «MEBek Europa eta Ipar Amerikari mehatxuei aurre egiten lagundu diezaike, baina Mendebaldeko Europaren Batasunak ezin du NATO ordezkatu», esan zuen EEBBeko lehendakariak. Bushek gogor defendatuko du NATOk irautea. Erakunde militar horrek aurreantzean izan behar duen eginkizuna eztabaidatzean, zenbait adituk erakundeak Varsoviako Ituna desagertu eta gero zentzua galdu duela esan dute.

EEBBeko lehendakariak, berriaz, NATOk etorkizunean indarrean segitu beharko duela esan zuen. «NATO gure askatasuna defendatzeko sortu zen eta totalitarismoa zapaltzea lortu dugu. Guk ez dugu itun militarrik sinatu, balore batzuk defendatzen direla mantentzeko ordena berezia sortu dugu Historian, inoiz desagertuko ez dena», esan dute.

**Andreotti: «Defentsa europarra ez dago NATOren kontraesanean»**

ERROMA

Giulio Andreotti Italiako gobernuko lehendakariak atzo adierazi zuen defentsa europar bateratua ez dagoela NATOren kontraesanean «alderantziz baizik, Atlantikoko Aliantzaren helburuei dagokienean Europak ekarpen handiagoa egitea ahalbideratuko bait du».

Andreottik, NATOren Gailurreko hasierako hitzaldian adierazi zuen, batasun politiko europarraren eraketak «segurtasun, defentsa eta Atzerri politika amankomuna behar duela oinarrian». Gaineratu zuen kontinente zaharraren etorkizuneko konposaketan kontutan hartu beharko direla «NATO, Batasun Politiko, Europako Segurtasun eta Kooperazio Kontseilua eta Mendebaldeko Europako Batasunaren arteko harremanak».



NATOk kide guztiak «famiario fotografiarako» prestatu ziren.

zuen Estatu Batuetako lehendakariak.

Bushek NATO etorkizunari aurre egiteko behar beharrezko erakunde dela adierazi zuen. «Datorren urtean edo datorren mendean zer gertatuko den ezin dugu jakin, baina etorki-

zunari aurre egiteko ahalmen askoz handiagoa izango dugu, hemen NATO eraberritzea lortzen badugu», azaldu zuen Bushek. «Gure herriek dituzten zalantzak ezabatu behar ditugu, beren interes garrantzitsuenak ziurtatuz», zioen lehendakariak.

## Demokristau europarrak EEBBekin

NATOren Gailurrera joan diren sei gobernu europarreko buruzagi demokristauak atzo adierazi zuten galerazi egin behar dela Estatu Batuek NATOren barnean isolaturik sentitzea. Giulio Andreotti italiarra, Wilfred Martens belgiarra, Helmut Kohl alemaniarra, Constantin Mitsotakis greziarra, Jacques Senter luxemburgiarra eta Ruud Lubbers holandarra, Gailurra hasi aurretik bildu ziren. Sei agintari demokristauak arduraturik agertu ziren iritzi publiko iparramerikarrak uste duelako Europak EEBB isolatu nahi duela Aliantzaren barnean.

Lehen ministro eta estatuburu demokristauen arabera, Estatu Batuetan Europako defentsaz arduratuta daude, eta horregatik ez da egokia Erromako bileratik «ez ulertzeak» irteera, adierazi zuen Pio Mastrobuni-k, bozeramale italiarra.

Buruzagi demokristauak nabarmendu zuten NATO aldaezina dela eta Lubbersek gaineratu zuen beronek izan beharko lukeela Europako Segurtasun eta Kooperazio Kontseiluaren defentsa tresna.



Giulio Andreotti.

NATOren etorkizunaz, Andreottik esan zuen Aliantzaren «beharrezkotasuna» azken urteotan Eki Europako aldaketa politikoekin berindartu egin dela.

Manfred Woerner NATOk idazkari nagusiak adierazi zuenez, erakundearen barnean Europako Ekialdeko nazioek sartzeko aukera izango dute. Woerner «ordena berria» sortu behar zela adierazi zuen NATOren gailurraren lehen ekitaldian. Historiaren etapa berri honetan NATO garai batean bezala erakunde erabilgarria dela azaldu zuen idazkari nagusiak.

NATOk historiak eragindako aldatetari erantzuteko ahalmena duela ziurtatu zuen Woernerrek. «Historiak mugiezintasuna ukatzen du», esan zuen idazkari nagusiak. Europan eta mundu osoan gertatutako aldatetarako egoera arriskutsua sortu dutela adierazi zuen.

Idazkari nagusiak NATOk erakunde militar gisa aurrera egin behar duela esan zuen. «NATOren defentsa egiturak bakea bermatzen du, krisiak konpontzeko bideak jartzen ditu eta gerra baztertzeko». Ez dago erakunderik NATO ordezkatzeko».

ERROMA

NATOren etorkizunaz eta Eki Europa eta Soviet Batasunaz hitzegin zuten atzo Atlantikoko Hitzarmeneko kide guztiak. Dena den, agintarien artean jarrera desberdinak daudela antzeman zitekeen.

Horrela, demokristauak NATO berrindartzea sutsu defendatu zuten. Helmut Kohl alemaniarrak nabarmendu zuen Europak NATOr atxekita segi behar duela, Atlantikoko Hitzarmenari sinesgarritasuna emango bait dio eta Europaren eskuhartzea NATOren berrindartu egin behar dela azpimarratu zuen.

John Major britaniarrak ez du garbi ikusten Europako defentsa ba-

teratua EEBBen partehartzerik gabe, Alemaniak eta Frantziak proposaturiko oinarrietan. Horregatik, iparramerikarren aliatu europarrak finenak adierazi zuen «ez dagoela inolako gogorik, EEBB Europako defentsa egituratik at uzteko». «Europak NATOren barnean eskuhartze handiagoa izan behar du, baina aparteko defentsa egiturarik osatu gabe» amaitu zuen Majorrek.

Françoise Mitterrand Frantziako lehendakariak, NATOren eginkizunek orain artekoak izan behar dutela azpimarratu zuen, eta ez orain dituen baino botere handiagoak. «NATOk bere nortasunari eutsi behar dio, soilik defentsarako balioko duen erakunde izan behar du». Eki Europa-

ko Estatuak erakunde horretan sartuko direla ez zuen baztertu, baina ohararazi zuen, estatu hauek konturatu behar dutela «Aliantza ona dela, baina ez dela Aliantza Saindua».

Mitterranden iritziak, «NATOk bere eremu propioa du, eta ez da Europako Segurtasun eta Kooperazio Kontseilua, Europako Komunitatea edo Mendebaldeko Europako Batasunaren eremuekin nahastu behar».

Felipe Gonzalez Espainiako gobernuburuak uste du, NATOk ez dituela etsai imaginarioak asmatu behar. «Ezin ditugu soilik arrisku faktoreak dauden tokietan mehatxu berriak asmatu». Soviet Batasuna batasuna izaten segitzeko gogoia ere adierazi zuen Gonzalezek.

Atzo Esandakoak

GEORGE BUSH

MEBek garapena ez dugu oztokatuko NATOren osaketarako baliagarria izan bait daiteke. MEBek, gainera, mehatxuei aurre egiten lagundu diezaike Europa eta Iparramerikari. Dena den, MEBek ezin du NATO ordezkatu. NATO gure askatasuna defendatzeko sortu zen eta totalitarismoa zapaltzea lortu dugu. Guk ez dugu itun militarrik sinatu, balore batzuk defendatuz konfiantza mantentzeko ordena berezi bat sortu dugu».

MANFRED WOERNER

Azken urteetan gertatutako aldatetarako segurtasun baldintza konpluaxuagoak sortu dituzte. Horregatik NATOk funtsezko betekizunak bete beharrean dago. Historia guztian segurtasuna gestionatzeko antolatutako diren erakundeetatik seguruena NATO da. NATOren defentsa egiturak bakea bermatzen du, krisiak konpontzeko bideak jartzen ditu eta gerra baztertzeko du».

GIULIO ANDREOTTI

Europako defentsa egiturak ez daude NATOren kontraerak. Europako batasunak atzerri eta defentsa politikaren garapena eragin du. Europarrek defentsa egiturak antolatzea batasunaren prozesuaren ondorioa da. Defentsa egitura hauek antolatzean NATO, Europako Kooperazio eta Segurtasun Kontseilua eta Mendebaldeko Europako Batasuna kontutan hartu beharko dira. Estatu Batuekin eta Canadarekin defentsa politika bateratua edukitzea funtsezkoa da segurtasun amankomuna bermatzeko».

JOHN MAJOR

Ez dago arrazoirik Estatu Batuek Europako defentsa egituratik kanpo uzteko. Europak NATOren barnean partaidetza handiagoa izan behar du, baina bere kontura defentsa egiturarik osatu gabe».

FRANÇOIS MITTERRAND

NATOk bere nortasunari eutsi behar dio, soilik defentsarako balioko duen erakunde izan behar du. Aliantza ona da, baina ez da Aliantza Saindua».